

MMXX

XIX. IPUIN ETA NARRAZIO LEHIAKETA XII. BERTSOPAPER LEHIAKETA

2020

Adin tarte guztientzako



E!
Erandio
UDALA
AYUNTAMIENTO

Informazioa eta oinarriak:
Erandioko IKASTETXEetan edo
udaleko EUSKARA ZERBITZUAN
www.erandiokoeuskarazerbitzua.eus
euskara@erandio.eus
944890128



Epea zabalik 2020ko apirilaren 3ra arte

XIX. IPUIN ETA NARRAZIO LEHIAKETA – 2020

OINARRIAK

1. Erandioztar guztiek, eta udalerriko ikastetxeren bateko ikasle direnek ere, har dezekete parte, nor bere mailan* aurkeztuko dela.

A MAILA: 7-11 urtekoak
B MAILA: 12-14 urtekoak
D MAILA: 14 urtetik gorakoak

2. Lehiaketa honetara aurkeztuko diren lanak euskaraz idatziak izango dira, eta idazkera argikoak behar dute izan. Gehienez, 6 orrialde izango dute, eta alde bakar batetik idatziak.

3. Partaide bakoitzak, gehienez jota, bi lan aurkeztu ahal izango ditu, sekula argitara eman gabekoak eta orijinalak.

4. Idazgaia librea izango da.

5. Ipuin edo narrazioan, 1. orrialdean, izenburua eta egilearen adina idatziko dira. Orriaren beheko partean agertzen den zatia bete era erantsi (datu horiek guztiak biltzen dituen aparteko orriak ere balio du).

6. Antolatzaileek izendatuko dituzte epaimahaikideak, herriko kultura edo/eta euskal munduarekin zerikusia duten talde eta norbanakoen artean.

7. Epaimahaikideek hartutako erabakia ukaezina izango da, eta haien esku geldituko da oinarriok interpretatzeko ahalmena, bai eta sor daitekeen edozein akats edo gorabeheraren inguruan erabakia hartzeko eskubidea ere.

8. Sarituak diren lanen jabetza, eta lanok argitaratzeko eskubidea ere, antolatzaileena izango da, horretarako egile(ar)en eskubide baimenik zertan eskatu izango ez dela. Maila bakoitzean sarituak izango diren lanak argitara emango dira (liburuska batean edo/eta euskarri informatikoan).

9. Lanak Udaleko Euskara Zerbitzuan / Kultura Sailean -Irailaren 23a plaza-, edo norbere ikastetxean (Erandion kokatua bada) aurkeztu ahal dira, baina...

PAPERAREN KONTSUMOA EKIDITEKO, eskertuko genizueke **posta elektronikoz bidaltzea**: horretarako erabili euskara zerbitzuaren webgunean dagoen formularioa.



10. Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar, ezinbestez; eta Erandioko Udalak DATU PERTSONALAK erabili ahal izango ditu, lehiaketaren kudeaketarako.

11. Lanak aurkezteko azken eguna: **2020ko apirilaren 3a**

80 -100 € bitarteko balioa duten txartel-sortak izango dira sariak, udalerriko saltoki laguntzaileetan erabiltzekoak.

* aurkeztutako lan kopuruaren arabera, kategorietako adin tartean alda litezke

Oinarri hauetan jasotzen ez den edozein gorabeheratan, antolatzaileak izango du erabakitze ahalmena



Datu hauek guztiak ere adierazi BEHAR dira:

Izenburua

ipuin edo narrazioa

Izen-abizenak:

Adina:

Telefonoa(k):

Helbidea:

kalea

ataria

(eskailera)

solairua

ate/aldea

Herria:

Ikastetxea:

* ikasle direnen kasuan

XII. Bertsopaper lehiaketa – 2020

OINARRIAK

- 1.- Erandioztar guztiek, eta udalerriko ikastetxeren bateko ikasle direnek ere, har dezekete parte.
- 2.- 3 sari egongo dira: guztira 85 eurokoak, sari-txartetan (udalerriko saltoki laguntzaileetan erabiltzekoak)

Hala ere, epaileek horrela erabakiz gero, sariak (edo sariren bat) eman gabe gera litezke.

4.- Bertso jartzaileek auzkeztekoa:

gutxienez	3 kopia	4 kopia	8 kopia
gehienez	3 bertso	8 bertso	12 bertso

(kopia edo bertso kopururako kontuan izango da parte hartzaileen adina)

- 5.- Partehartzaileek, gehienez, 3 bertso-sorta aurkez dezakete lehiaketara.
 - 6.- Bertsoak gai eta doinu librean jarriko dira. Dena den, ezinbestekoa da doinuaren izena argi adieraztea.
 - 7.- Lanek orijinalak eta beste inon argitaratu nahiz saritu gabeak izan behar dute. Izenordea erabiliko da sinadurarako.
 - 8.- Lanak aurkezteko azken eguna: 2020ko apirilaren 3a.
 - 9.- Bertsopapera, Udaleko Euskara Zerbitzuan / Kultura Sailean -Irailaren 23a plaza-, edo norbere ikastetxean (Erandion kokatua bada) aurkeztu ahal dira, baina....
- PAPERAREN KONTSUMOA EKIDITEKO**, eskertuko genizueke **posta elektronikoz bidaltzea**: horretarako erabili euskara zerbitzuaren webgunean dagoen formularioa.
- 
- 
- 10.- Epaimahaiaren osaketa Erandioko Udaleko Euskara Zerbitzuak erabakiko du, horretarako pertsona adituak hartuz. Eta haien erabakia aldaezina izango da.
 - 11.- Saritutako lanen jabetza Erandioko Udalarena izango da. Sari-ematea burutu ostean lan hauek argitaratzeko eskubidea izango dute antolatzaileek.
 - 12.- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar, ezinbestez; eta Erandioko Udalak DATU PERTSONALAK erabili ahal izango ditu, lehiaketaren kudeaketarako.

Oinarri hauetan jasotzen ez den edozein gorabeheratan, antolatzaileak izango du erabakitze ahalmena



Datu hauek guztiak ere adierazi BEHAR dira:

Izenburua

bertsopapera

Izen-abizenak:

Adina:

Telefonoa(k):

Helbidea:

kalea

ataria

(eskailera)

solairua

ate/aldea

Herria:

Ikastetxea:

* ikasle direnen kasuan